Geronimo Stilton

METROKO MAMUA

UMOREA ETA BIDAIAK

DESTINO

Karraskari lagun maiteok,
ongi etorri nire mundura

Geronimo Stilton

Sagukaria

Erredakzioa

Geronimo Stilton
Sagu intelektuala,
Sagukariko zuzendaria

Tea Stilton
Abenturazale ausarta,
Sagukariko berriemaile berezia

Trikimailu Stilton
Geronimoren lehengusua,
bihurri eta maltzurra

Benjamín Stilton
Geronimoren iloba,
atsegin eta maitekorra

Geronimo Stilton

METROKO MAMUA

DESTINO

IKARA METROAN

Ai ene! Metroak harrapatzeko zorian nengoen! Korrika ari nintzen...

...ikaraturik esnatu nintzen ohean.

Ufa, ametsa baino ez zen!

Orduan, TELEFONOAK jo zuen. Logale, eskua luzatu eta esan nuen:

—Bai, esan! Stilton naiz, *Geronimo Stilton*!

Nire arreba Tea zen. Eta ia-ia zulatu zidan belarri-mintza:

—Geronimo! Zer, lo, ala? Zatoz berehala bulegora! **Be-re-ha-la!**

Ohe ondoko erlojuari begiratu eta ikaratu egin nintzen. Nola? Bederatziak eta hamar? Ez ote nuen txirrina entzun?

Izugarri berandu zen!

Segidan helduko nintzela esan nahi izan nion Teari, baina eskegia zeukan telefonoa. ZIZTUAN dutxatu, gorbata jantzi bitartean hortzak garbitu, ate ondoan te bat di-da irentsi eta eskailerara irten nintzen, jaka janzten nuen bitartean... Ero baten antzera irten nintzen kalera, egunkaria airean hartzen nuen bitartean taxi batek



harrapatzeko arriskuarekin.

Arnaska, Harri Kantariaren plazara jo nuen, metroa hartzeko. *Ai ene!*

Metroaren zain nengoela, **egundoko** miau felino batek izutu ninduen...

MIAAAAUUUUU!

Hango karraskari guztiak eskaileretara zuzendu ginen, beldurrak airean:

—KATU bat! KATU bat metroan!

Dardaraka, irteerarantz jo nuen, baina bazter batean geratu nintzen, jendetza izutuaren hankapean erortzeko beldurrez.

Ilobari eskutik heltzen zion amonatxo bat garrasika ari zen:

—*Katu bat!*

Ai ene! Mokadu batez jango gaitu!

Ilobatxo gaixoak negarrari eman zion, beldurturik.

—Egon lasai, andrea —xuxurlatu nion andreari, lasaitzearren, umea beso artean hartuta—. Dena ondo aterako da!

Gero, eskailerak poliki igo nituen, hanka batez umeari eta besteaz barandari helduz.

—Andrea, jar zaitez nire aurrean, horrela ez dizute bultza egingo! —esan nion.

Kanpora iritsi ginen, azkenik.

—Eskerrik asko, *gazte!* —esan zidan andreak, adeitsuki.

Nik gazta zaporeko IZOZKI bat eskaini nion umeari; amonari hankan muin eman eta erantzun nion:

—Ez dago zergatik, andrea!